

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO
SAILARTEKO BATZORDEAREN BILERA
REUNIÓN DE LA COMISIÓN INTERDEPARTAMENTAL PARA
LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES**

2021-07-05 Vitoria-Gasteiz 05-07-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua; Sailaren, Emakunderen eta Batzordearen kideok, egun on.

Ongi etorriak guztiok Berdintasunerako sail arteko Batzorde honetara.

Pandemia garaia bizi dugu, gure bizitza baldintzatzen duena. Besteak beste, gaurkoa, Legealdi berri honetako lehen bilera da; beraz, agur berezi bat Batzorde honetan lehen aldiz parte hartzen duzuen ordezkarioi.

Eusko Jaurlaritza osoak berdintasunarekin duen konpromisoaren erakusgarri da Batzorde hau.

Duela 28 urte, 1993-an sortu zen Batzorde hau, helburu honekin: “Eusko Jaurlaritzak egiten dituen berdintasun politikak sustatzea eta koordinatzea”.

Xede hau funtsezkoa da berdintasun politiketan, zeharkako politikak diren heinean. Izan ere, horrela agintzen du Berdintasunerako Legearen 3garren artikulua: “Herri agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan”.

Honek esan nahi du Osasuna, Kultura, Hezkuntza, Enplegua, Ekonomia, Hirigintza, Segurtasuna eta bestelako eremuetan, plangintzak egiten ditugunean, kontuan izan behar dugula emakumeen eta gizonen egoera, baldintzak, beharizanak ez baitira berdinak. Ondorioz, hori guztia kontuan hartzen duten politikak egin behar ditugu arlo guztietan.

Xede eta konpromiso hau partekatzen ditugu eta, beraz, eskerrak eman nahi dizkizuet ordezkartuta zaudeten Sail guztiei. Argi dugu zuen eremuetan berdintasunaren alde egin duzuela, egiten ari zaretela eta egiten jarraituko duzuela.

Zuen lan hori ezinbestekoa da aurrean dugun erronkari erantzuteko, hau da: “aurrera egitea etengabe emakumeen eta gizonen berdintasunean eta, ondorioz, emakumeen kontrako indarkeriaren kontra”.

Legealdi honetan gure konpromisoa berretsi eta indartu nahi dugu; eta horren adierazlea da aurten Legebiltzarrak onartuko duen Berdintasunerako Legearen eraldaketak.

Berdintasunaren aldeko eta emakumeen indarkeriaren aurkako herri itun bat lortu nahi dugu eta helburu horretan Jaurlaritza eredu izan behar da.

Beraz, eskerrak Sailari eta Sail guztiei zuen konpromisoagatik; eskerrak ere Emakunderi politika guzti hauek koordinatzen egunero egiten duen lanagatik.

Hasi gaitezen, beraz, gai zerrendako lehen puntuarekin.